


71R

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
21 n. ZENBAKIA

ORRILLA
-1979-



TONOSTIAKO MENDI BULTZA, BIEBOKOA NOZA



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU

UDAL BARRIAK

GARRANTZIA

Batzuntzat samiñez, besteentzat pozez, olako edo alako udalak sortu-barriak doguz. Eta jazoera onek garrantzi aundia dauka gure Errian, gero izango diran bideak egoki agertzen ba' dira: Euskaldunontzat gizona izan da beti lenengo oiñarria eta urrenge maillea sendia. Aspaldion sendiari jaramon gitxi egiten jako Ez dot uste gaurko demokraziak larregi kontuan artzen dauanik etxe-jauna edo etxe-anderea.

Sendietatik gorago jo ezkerero, euskaldunak auzoa izan dogu gogoko, kofradiaren edo auzunearen izena ezarriaz, baiña au be gaurko demokrazian erdi-isillik agiri da. Udal barrien zeregiña izango da auzoai zor jaken indarra emotea.

Alderdi politikoak baiño beste bide egokiago batzuk artu bear leitekezela erri-maillan, diñoe gaur askok. Politikeari begitu barik, gizon egokienak aukeratzeko bidea. Lenago be alderdi politiku barik izan zan euskaldunen errigintza, naiz ta Ganboa' tarrak eta Oiñaz' tarrak olako zerbaiten antzekoak izan. Baiña gaurko giroan, erri txiki-txikietan izan ezik, olako amesak ames utsen antza dauke.

Alderdi politiku guztiai bai au eskatu bear dautsegula, beti, baiña geiago erri-maillan: Alderdia baiño erria maiteago izan dagiela, edo alderdiaren maitetasuna erri-zaletasunerako bidea izan daitela.

* * *

NORTZUK

Ba-dakigu nortzuk izango diran errietako arduradunak, udalkideak eta udalburu edo alkateak, gitxi gorabera. ZER au irakurleen eskuetara eldu-orduko, ziur be bai.

Abertzaletasunak indar aundia artu dau, azkenengo auteskundeak erakusten dauanez. Au bai pozgarria! Araba abertzaletu jaku, Naparroa'n be Erri-Batasunak izan dau bere indarra.

Gero or daukagu, atzeraka baiño ez ba'da be, PSOE erri batzutan nagusi eta iñoz abertzale-itxurak be artuta. Baiña Alderdi ori antxiñatik ezagutzen dabe gure benetako abertzaleak.

Ikusten dira baita, naikoa ugari, gure artean alderdia aldatzeak; sarritan gurasoak aldatu dira seme-alaben eretxietara: Joko arriskugarria jake-aldatze au! Baiña errazoi sakonai begiratzuz egiña izan ezkerero... zer egin?

Dana dala, gure udaletan demokrazi-usaiña sortuko da.

* * *

ZER EGIN?

Ez da txantxetakoia udal barri oneik leporatu daben lana.

Or dagoz ainbat arazo, esaterako: Etxegintza, bidegintza, urigintza, jolasak... baiña udalak lenengo lez artu bear daben arazoa kulturearena, jakintzearena da: Gure jakintzearen susterrak billatu, eskolak euskaldundu (maixuak be bai), elduen abedetzea ta jakintzara urreratzea, erriaren eta Euzkadi'ren kondairea ta lutelestia irakastea (erri guztiari), izkuntza ta elertia (literatura) indartzea... Erria kulturatzen ba'dogu, Euzkadi salbatuko da.

* * *

GORAGOKO MAILLAK

Bizkai-Batzorderako be izan da auteskunde au, baiña gai onek ots aundirik ez dau izan eta aukeratuak be ez dakit ba zeregin edo eskubide aundirik daukenik, autonomia edo buru-jabetza lortu arte beintzat. Bat bai garrantzi aundikoa: Aldundia edo Diputaziñoa aukeratzeko.

Elduko al gara, apurka-apurka, egoaldeko lau errialdeak batzera eta gero iparraldeko anaiakaz aberria ta laterria egitera.

EZIKETEA

ZENBAKIAK ETA EZIKETA

AGOZ-IKASTEN

Gurasoen ardura berezi bat umeci zenbakiak irekastea izaten da.

Onelan, sarritan, mailla batzuk jatsi edo igotean, eurak zenbatzen ikusi edo entzuten doguz.

Ba-leiteke umeak orrela zenbakiak utsean ikas-tea, eta ba-leiteke zeabakiak eurak ondo esatea.

Onek ez dau esan nai zenbaki orrean esanaia umeak oraindik ulertzen dauanik.

Zenbakien elburua geroago ulertzen dau.

* * *

GURASOEN AMESA

Arlo onetan, batzutan beintzat, gurasoen amezak ez dira betetzen.

Urte bi ez zituala nire alabak amarrera arte zenbatzen eban.

Eta ain txikia orretan uts barik ikusirik, guraso baten ametsa auxe izan daiteke: ze azkarra dan nire alaba!

Egia be izan daiteke, baiña baita oiñarri bako amets utsa be: amarrera arte zenbatzeak ez dau adierazten esaten dituan zenbakiak ulertzen dituanik.

Beste izen askoren antzera, esan egiten ditu; baiña esan bakarrik.

* * *

ULERTZEN

Zenbakiak benetan ulertzen 4 urte ingurugaz asten dira.

Sasoi onetan konturatzen dira beste batzuk be ba-dirana mundu onetan; beste batzuk be errespetatu bear dirana, zenbat ume edo gauza dituan aurrean, eta abar.

Au da: zenbakia ulertzen asten da.

Oraindik aurrera gozoki bi nai ba'ditu, «bi» eskatuko ditu, eta ez orain arte lez: «iru» zenbakia esan «bat» baiña geiago adierazteko kontutan.

* * *

AURRERAPENA

Ikusi dagiguzan onetaz Nehaus jakitunaren teoria batzuk:

Nehaus'en iritiz, zenbakiak eta aurrerakuntzak ba-dabe euren zerikusia: aintziñako errietan eurretan be zenbat eta aurreratuagoak izan, zenbaki arloa obeto erabiltzen eban.

Beraz, zenbakiak zuzen erabiltzen jakitea eta kultura mailla bardintsu dabilkuz.

Umeengan be bardin gertatzen da.

Eta argiago ikusteko jo dagiguzan jakitun onek atera dituan ondoren batzuk.

Bere iritiz, umea 3 urtetik aurrera launakako gauza-taldeak egiten asten da. Lau urte t'erdigaz bostnakakoak, eta onelan gero eta gauza talde ugariagoak.

Sei urtegar: iruko taldeak egiten ez jakitea, ostera, atzerakuntza gogorraren ezaugarritzat arzen dau.

* * *

LAGUNDU

Beraz, atera dagikeguzan ondorioak oneik litzakez: leenengo eta bein, ez dala bardin zenbatzea eta zenbaki orrean esanaia ulertzea; eta bigarren lekuan, zenbaki orreik ulertzen lagundu egin bear dautsogula: ez dago teoriarik erakutsi bearrik, jolasakaz egin daitekena da eta.

JOSU LEGARRETA

ESPETXETIK ZOTIÑAK

Ames egin dot? Burua galdu?
Nork ekarri nau ni ona?
Emengo ormak, emengo gelak?
Etxe au ez da ezaguna.

Lotatik guztiz itxar naiz orain,
zori txarra niretzako;
espetsen nago, au zori gogor,
nire lan danak, zertako?

Burrukan ein dot, zintzo bai zintzo,
gure Erria azkatzeko;
ordain illun au averioak,
erruki baga nitzako?

Nire aita-amak nun ete dagoz?
zalantza barik negarrez.

Euren negarrak nire biotza,
urratuten dau samitzez.

Nire ezkongai txit maitalea,
agiriko da tamalez;
aren biotza nigandik urrun,
negar dagilla atsekabez.

Emengo janak txarin makalak,
aixe garbirik inun ez;
arpegi illun, berba garratzak,
belarririk entzungo dabez.

Egalari dan txorin antzera,
Euzkadira nai dot joan?
baiña kaiolan lotuta nago,
joatea ez dot eskuan.

Ez dot nik uste nire ekintzak,
izan dirala gauz txarrak

gure eskubide antxiñakoak,
lortuteko alegiñak.

Gure aberri gazte bagarik,
ainbat dira espetsetan;
sendiak larri banandurikan,
ortze alde lañotan.

Gure lur maite zoragarria,
gaur egun, larri dagola?
Udabarri bat noiz elduko da?
Jarrai ez dagin orrela?

Ernai biotzak, Jauna lagun ta,
iraupen-lan ta otioiaz;
Aberri maite zori txarduna,
askatuko da egiaz!

ERRIKOI

ASKATASUNA

Antzerki-fabula

Antezlariak iru dira: Edeslaria eta txakur bi: Petrukin txakur argala eta gosetia, eta Petrukan lodia eta gizona.

Petrukan mai batean jarrita egongo da, jan ta jan... baiña lepotik kate bat dingilizka.

Petrukan mai-inguruan gosez, an emen usainka, zer agora ekarriko...

Edeslaria (mutil edo neska bat) sartu eta esango dau:

*Gure txakurrak, begira,
txakur bi dira:
bata Petrukin eta bestea Petrukan.
Petrukin zimela da, mustur luze, beti gose,
azur zorrotz eta anka me.
Jaio zanetik, ez dot uste,
iñoiz dauanik estea bete.
Petrukan, barriz, tripankiko,
lepo-lodi, txarri antzeko.
Ba-dauka onek zernai janari, ugari,
lukainka, solomo eta txarriki.
Emen dozuez biak,
tilin tilin, talan talan,
Petrukin eta Petrukan.*

Petrukan'ek maitik:

Kaixo, Petrukin, or zertan abil.

Petrukin'ek:

Nire gosea, lagun, ezin joat il.

Petrukan'ek:

*Ba, nik ezer be ez jaukat eskas:
oillasko errea, tripakiekaz,
bildots, txarriki, kazulakadaz...*

Petrukin'ek:

*Esaidak, Petrukan, esaidak, arren,
ain ondo bizitzeko, zelan az konpontzen?*

Petrukan'ek:

*Jarri adi, nire antzean,
aberats balen menpean,
eta egongo az onen etxean,
eguzkia artzen egun guztian.
Biziteko ba-daukak txabola,
jateko naiko okela,*


*Ianik ez, eta oe bigun epela.
Zergatik bizi beti gose orrela?
Bizi adi gizen ta lodi, ni bezela.*

Petrukin'ek:

*Ondo bizi az bai, lagun Petrukan,
ire nagusiaren menpean,
Ba-dok bai, zer jan ta zer edan...
Baiña... or dingilizka zer daukak lepoan?*

Petrukan'ek:

*Au dok urrezko kate eder fiña,
nire nagusiak niretzat egiña.*



Petrukin'ek:

*Ez joat nik nai, lagun, katerik,
ez diamante, ez urrezkorik.
Gurago joat milla bider nik,
gosez ba'da be, bizi aske ta librerik...
Iretzat, Petrukan, ire kate eder astuna...
Niretzat ederrago dok ASKATASUNA.*

Edeslaria'k:

*Bear dau gizonak jana eta edana,
baita bizileku eta oe biguna,
Baiña gizonarentzat, gizon ba'da,
ederrik ederrena, gozorik gozoena,
ASKATASUNA.*

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI

GIZAUNDIAK

ESPOZ MINA, GUDALBURUA

PRANTZIAKO IRAULTZA

Godoy, Españaiko ministru bitxiak guda-turuta jo eutsen Prantzia'ko Iraultza barriko agintariak. Eta gudari-pilloak eskatu orretarako euskaldunak.

1792'garrena zan: Naparroa'ko Idozin errixuen jaiotako Espoz Mina. Eta umetxua zan. Jakiña, ez eban armarik jaso.

Ez berak, eta ez beste askok be. Bat bakarra azaldu zan Naparroa osoan, izkillo eske. Epel jokatu eben euskaldunak, bai! Ez zan euren arazoa, Prantzia ta España artekoa baiño.

Errez sartu ziran, orrelan, Prantziarrak Euskalerriko lurralde barrura. Eta Euskaldunak asarretu barik eta ituna egin eben Prantziarrakaz.

Zer itun?... Ba, Españaigandik bereixi, ta «Euskal-Errepeublika» sortu, Prantziko agintari barrien babespean.

Ez eban luzaro iraun egoera barri orrek.

Andik laster, España ta Prantziak bakeak egin ebezan eta lengotara biurtu ziran gure gauzak.

NAPOLEON

Andik amasei urtetara, 1808'garrenean, Napoleon sartu zan gurean, bere guda-mutillakaz; maltzur-maltzur, lenengotan; eta guda gogorrean, ondorengotan.

Eta orain, bai, orain jaso ziran euskal mutillak.

Longa jarri zan arein buru, Bizkaian; Jauregi artzaiña, Gipuzkoan; eta Espoz Mina, Naparroan.

Irurok izan ziran ausart eta adoretzu; baiña Espoz Mina irurotan eregilla ta ospetsuen.

ESPOZ MINA

Laster batu ebazan bere alborra milla mutil bizkor, eta Naparroa osoan, barra-barra ebiltzen Prantziarren aurka asi zán gogor.

Baiña, ez zan, gauza samurra. Areriaz inguratutik egoen alde guztietatik, eta batera ta bestera ibilli bear beti, jangaiz urri, eta gudaizkilloz urriago.

Amar millaraiño ugaritu ebazan, alan ta guztiz be, Espoz Mina'k bere mutillak; eta arearioari kendutako izkillo ederraz jantzirik, sekulakoak egiten ebazan onein lepotik.

Eta auxe okerrera: Prantziko mugak, eta Naparroako bideak artuta eukazala gure gudalburuak, eta ezin zeikela arerioa bere erara, iñundik-iñora be ibilli

Oartu zan Napoleon zurra, eta auxe esan eutsen Naparro'ako bere ordezkari Reille gudalburuari: Mina, gudalburu ori ondatu len bait len; zeure narruaz ordainduko dozu, osterantzean.

Dana, alparrik. Andik laster, Mina'k Naparroa'n egozan Prantziar guztiak esetzi ta jartzatu eta Iruña'ko arresipean sarrazo eta an euki ebazan inguratutik, naiko estu ta larri.

CADIZ'KO LEGEDIA

Españaiko lurralde geienetan Prantzirrak atzeraka ioiazan, eta Españaiko ordezkariak itzartu, ta Cadiz'ko uriburuan batu ziran, gerorako lege barriak antolatzeke.

1812'garrenean osotu eben legedi barri ori.

Alderdi bi eukazan legediak: Bata ona ta bestea, txarra.

Españaik ordura arte ezetsitako giza-eskubideak onartzen zituan; baiña ordura arte zaindutako geure erri-eskubideak ezesten zituan.

Ez genduan euskaldunok ezer irabazten: Betidanik genduzan onartuak giza-eskubideak. Eta galdu, barriz, geure betiko erri-eskubideak galtzen genduzan.

Ori zala-ta, Mina'k legedi barri orren zenbakia eskuratu ebanean, berau aulki baten gainean ezarri, bere mutil talde bateri deitu, ta tiroz jo ta ezestu eban.

KARLISTALDIAN

1813'garrenean amaitu zan guda ori. Eta Napoleonek Prantzian atxillo cukan, Fernando

VIIgarren erregea urrengo urtean Españiratu zan.

Onek Cadiz'ko legedi ori ezetsi, ta lengotara biurtu ebazen emengo gauzak.

Poztu zan Mina, ta Naparroa'ko aldundiari zorion berocnak emon eutsozan.

Naparroa'ko agintari edo errege ordezkoa cgingo ebela uste eban berak. Baiña, erregek Mina barik Ezpeleta'ko kondoa aukeratu eban orretarako.

Mina, bere lagun zarragaz asarretu, ta Prantzira joan zan zapuztuta.

1833'garrenean Fernando erregea il, eta aren alaba Elisabet koroatua izan zan Españaiko erregeña lez.

«Liberalak» deitutako Cadiz'ko legedi-zaleak onartu eben erregein barria, eta «absolutista» deitutako lengo zaleak ezetsi, ta Fernandoren anai zan Karlos V'garrena izendatu eben aren ondorengotzak.

Laster lotu ziran alker-guda gogorrean, Elisabetarrak eta Karlotarrak.

Eta emen agertu zan, barriro, Espoz Mina. Ez zan lengoa; zapuztuta egoan oraindiño, eta bere lengo lagun zarren aurka ekin eban, Kaslostarren aurka, ziur.

Ez eukan baiña lengo arrakasta ta eraginik. Zumalakarregi'gaz egoan, orain, Naparroa. Eta Madrideruntz joan zan Espoz Mina, berriro zapuztuta.

Zumalakarregi, bitartean, Madrid'etik etorritako gudalburu guztiak apurtuaz ioian, bata bestearen ondoren. Eta Espoz Mina bidaldu eben Madrid'etik, orduan, gudaloste guztien gudalburu bakar lez.

Berrogei milla mutil eukazan Minak; ogei milla, Zumalakarregik. Naparroakoako Ultzaman jo eben alkar. Gogor jo be. Eta Minak galdu eban eraso.

Ez eben bizirik galdu, baiña erasoaz mindu ta geisoturik, andik laster il zan.

Ai! Eta milla bider ai! Espoz Mina ori iñoz zapuztu ez eta bi euskal-gudalburu orreik beti, alkarregaz joan izan ba'lira!

URKIOLA'K

Mikel Zarate Agur!

Bai! Agur, Mikel, idazle ona, euskalzale gogotsua ta arduratua, irakasle maitatua, adiskide kutuna!

Idazle ona ziñan, Mikel adiskide!

Eta lagun ona be bai. Gure eritxiak ez ziran beti bardiñak, baiña lagun giñan.

Isil-isillik joan zara gugandik. Agur.

* * *

Lenengoa izaten zalea ziñan eta agur egiteko orduan be, zeure ikaskideen artean lenengoa izan zara.


Gurari bizi orrek be, ba-ditu bere arriskuak.

* * *

Lan geiegi egin dozulako, ain gazte ta ain bereala joan zarala diño zure lagunak. Bai. Aldi laburrean epe luzeko lanak egin dozuz.

Baiña zure lana amaitu barik geratu da, Mikel. Nork jarraituko dau?

* * *



Jente asko izan zan zure illetan, eta euskerearen arloan alde bietakoak.

Gotzaindegiko zure lagunak be ugari izan ziran, gotzain biak buru dirala.

Eun bat abade eta eleiztarrak millaka. Maitale asko izan dozu!

Gazteen eskuak ekarritako lore-koroiak be ugari izan ziran.

Eta urten gintzanean, ez egoan bide za-baletik berebilla eroateko erarik, dana be-terik, dana geldiro-geldiro.

* * *

Ur bitako arraiña izan ziñan zu eta, geie-netan, erdibidetik doazenak ertz bietako arerioak izaten dabez.

Zelan orduan ainbeste jente zure agur orretan?

Illai olako gauzak parkatu egiten jakez, baiña ez biziai.

* * *

Euskera-arloan diran ibai-ertz bien ar-tean zubia egitea zan zure amesa ta gurari bizia.

Bai, Mikel, guztiok nai dogu batasuna, alkartasuna.

Baiña ez dozu uste zubia egiteko lenengo orma sendo bi egin bear dirala? Eginda ete dagoz orma bi oneik? Sendo jarrita ete dagoz?

Oba ibai-ertz biak ez ba'legoz, baiña or dagoz eta zubia bearrezkoa da, eta egingo da orma biak sendo dagozenez, geurea gal-tzeko arriskurik ikusten ez dogunean.

* * *

Zuk ur-gaiñeko zubia egiteko ardurea zeunkan eta orma bietan lan egiten zenduan, baiña ardura aundi barik. Zure ardurea orma-gaiñeko zubia zan.

Baiña ez estutu, Mikel. Egun baten zubi ederra eginda ikusiko dozu eta or izango dira ondo agirian zuk ipiñitako arri landuak. Bergara'ko zure alegiñak bere frutua emon-go dau.

* * *

Zuk gaztel-elertia ondo ezagutzen dozu.

Olako giroa zan Gongora ta Quevedo'ren aldi aretakoa: biak izan ziran orma sendoak eta gero agertu da gaztelera batuaren zubi ederra. Arein ezharditasunak erdera ori indartu egin eban, ez ondatu.

Orixe jazoko da gero baten euskeran be. Baiña zuk ez dozu ikusi emen, eta guk be, bear ba'da, ez dogu ikusiko.

* * *

AGUR, MIKEL!

Ikusiko al doguz guk emengo gauzak zuk ortik, ibaiaren beste alde orretatik, ikusten dozuzan moduan, atzera beintzat.

AGUR, MIKEL, AGUR.

OLAZAR'tar Martin'ek

ARAZOAK

TABAKO-ORRIA TA OSASUNA

Danak dakigu atsegintsua dala noizean bein zertxobait erretea.

Geien baten, errezaleak izan ez arren, zigarrotxoren bat edo beste erreten dogu, eta jai ospatsuetan txokor zurga edo mustada patxadazkoz jaiari amaiera pozkorra emon be bai.

Emen, beste ainbatean legez, larregikeriaz daragoiot.

Ori ta be, tabako-orriaz, neurri txikiago baten asi bear-ko dogu, zigarro-kea be, batzun eritxiz, kaltegarri jakunez.

BIOTZEKO GAISODUNAK

Lenengo, biotzeko gatzak jota dagozanak arrisku aundian aurkitzen dira erretzailleen kea arnasaz artuaz.

Wilbert Aranow ameriketar osagilleak dirauskunez, ez da egokia batez be biotzeko gaisoa daukenentzat errezaleen inguruan egotea, erreten daben notiñen arrisku berberak eurenganatu eta jasan dagikezenez.

Milloika dira ameriketarren artean toki agirietan erretzea debekatua izan daitela eskatzen dabenak.

Wilbert Aranow Kaliforni-
arra, Lo Bengach'ko gudari

zarren osagillea dogu. Saio ta azterketa ugariak egin ditu biotzeko gaisoagaz jota dagozen eta erretzen ez daben gizakiakaz, eta erretzailleak inguru-marietan daukezanakaz, ain zuzen.

KE-AZTERKETAK

Gure osagilleak, lenengo ta bein, amar gaiso batu zitu-
tuan, danak biotzeko miñaz («angiña» gaz) mindurikoak.

Gaisotasun onek, dakigun lez bularreko min bizi bat sortzen dau soin-jardun-aldi edo ariketaren ondoren.

Amar gaisodun oneik ordu bi osoetan gela txiki baten sartu ebazan eta eurakaz batera iru erretzaille.

Oneitariko bakoitzak bost zigarro erre egizala erabagi eban.

Gela txikia, 12 neurkin laukokoa or nunbait ei zan.

Saio bitartean, batzutan lei-oak zabalik egozan keari ur-tenbidea emoteko eta beste-tan zearo itxita orrelan kea moltsotu ta batzeko asmoz.

Gelea egurastu zanean, gaisoak lau minutu luzatu ziran soin-ariketak egiten bularra-ko miñok nabaritu gabe. Kea

moltsotu zanean, ostera, mi-
nutu bi ta erdi bakarrik.

Bai lenengo eretian eta bai-
ta bigarrenean be, biotz-saka
edo odol presiñoa artu eu-
tsen osagille ospetsuak eta
orrez gaiñera biotz-taupadak
zenbatu.

Saio bietan gorakadatxua
izan eben amar gaisok eta
sendagillearen eritxiz, taba-
ko-orriari aurkitzen dan ni-
kotinearen errua.

IGURUMEN AKASDUN BAT

Nikotina arriskutsua dala,
zigarroa erreten danean sor-
tzen dan osijen edo arnas-
gaiaren gabetasuna gaiñera-
tzen ba-dautsagu, gazteleraz-
ko «círculo vicioso» edo in-
gurumen akasdun oker-eraz-
le bat sortu leike.

Tabako-orriari dagon niko-
tiñak biotzean osijen geiago-
ren premiña sortzen dau, bai-
ña zigarroa erretetan sorturi-
ko arnas-gaiaren gabetasu-
nak ez dautso izten odolari
biotzak bear dauan beste osi-
jen eroaten. Or dago kozka.

Ortik, azkenez, bularretako
aje edo miñak, eta gure osa-
gillearen eritxiz, kalte oneik
gaisoai ez-ezik errezaleai be
eldu leikioez ziur-ziur.

ARREGI'tar Josu'k

TXISTUA

EUSKALDUNA?

Xulubita, zirula, txilibitu ta xulula izenakaz ezagutua izan da orain txistu izenagaz Euskalerrian ezagutzen dogun au, eta Euskalerrikoak orain diran edo kondaran zear izan diran eskualdeetan agertzen da, Jaka'n esaterako.

Noztik erabilli dabe euskaldunak euren dantzetan tun-tunagaz batera jotzen dan xurula ori?

Antxiñako gizarte nagusietan, Asirian, Babilonia'n eta Grezia'n esaterako, xurula arteza eta teknika-arauz euskaldunen txistua lakoa erabiltzen eban, baiña eraztunen neurritz eta beste zeaztasun batzutan ezbar-diña zan.

* * *

ANTZEKOENAK

Ori olan dala, euskal txistuaren lentasuna aundia da.

Asiria'ko laugarren eta bostgarren errege-jatorrien (dinastien) arri-illobietako ozka txikietan (bajo-relieve), 2.700'garren urte-ingurua Kristo'ren aurretik, agertzen dira gure txistuaren antzekoenak.

Egipto'ko illerrietan aurkitu diran berrogei ta bost xurula dagoz gordeta Londres eta Florentzia'ko erakurtetxe edo museoetan.

Baiña ba-daukagu beste balio aundiko argibide bat, txistua giza-diko edozein zirula ta soiñu-ereskin baiño lenagokoa dala adierazteko.

* * *

BILLAKETEA

Strasburg'eko Unibersidadean jakintzalari eta arkeologorik gurena dan Passermard'ek egin eban billaketarik ospetsuena gogoratzen dogu.

Errobi'ren inguruan, Napar-Auñamendi'ko arakatzeak egiten egoala,



Euzkadi'ko billaketarik aundienera jo eban. Amabi km. ego-sortalderantz, Isturitz izeneko erritxuan, Naparroa'ko seigarren lurraldean (Benabarra'n) izan zan. Arri-aroko leiza bat dago bertan eta berrogei ta hamar metro lurpera sartuta.

Asaba zarren erti-trebetasuna go-raltzen daben azur langintza asko aurkitu ebazan an, eta onein artean egazti-azur lodi bat aurkitu eban Passermard Irakasleak: Alde baten iru zulo eukazan bata besteagandik urrinduta eta, billatzailearen ustez, soiñua aterateko egokituak.

Zori txarrez, gorengo zuloa apurtuta dago eta zatia ez da agertu.

Orregaitik ezin jakin soiñu orren tankerea. Dana dala, arkeologo zoriontsu onen eritxiz, gizadiko soiñu-ereskin edo soiñogaillurik antxiñekoena dogu, iru zulozko xurula arteza edo Isturiz leizako txistua.

* * *

ANTXIÑAKO TXISTULARIAK

Napar-ibarreko «Santa Maria de la Oliva» lekaidetxean, XII mendeko eleiz egikera erromaniku eder bat ikusten dogu.

An arrizko irudi txiki baten musikariak euren ereskiñak jotzen dabiltz eta gizontxu batek ezkerreko eskuan xurula artez txiki eta eskoian tun-tuna daukola jotzen dau.

Txistuaren kondairarako, arri landu onetako txistularia garrantzi aundikoa da.

Iruña'n, San Zernin'en eleizan, aingeru txistulari antzekoak ei dagoz.

Zernin deunaren eleizako ateaurre ikusgarrian, antxiñako arri-illobia apaintzen dauan aingeru bikotea dakusgu ate nagusiaren eskumaldean. Aingeru bat laud antzeko ereskin bat jotzen dago eta besteak xurula arteza esku ezkerreko eskitan jotzen dau. Tamalez, ezin esan geinke ziur aingeru ziruladun ori txistularia dan, tun-tunik be ez dauka ta. Zori txarreko ebaketa basati batek esku eskoia kendu eulson eta ez dakigu esku orregaz tun-tuna jotzen eban ala ez.

Iruña'ko eleiza nagusian, katedralean, iru txistulari agiri dira: Xurula artezagaz eta tun-tun eta guzti.

Orrezaz gaiñera, turulari bik erdian dabela, txistulari batek errege-ekontza alaitzen dau zirula-soiñuaz eta tuntuna zartatzeaz.

Euzkadi'ko eres-ertiaren lenengo agerpenak dira oneik.

LETONA'K

ABESLARI TALDE BARRI BARRI

Loraillan edo orrillan euskal-eresmintz * barri batek urtengo dau saltokietara, eresmintz au Lauburu taldearen abestiz osotuta dago.

Lauburu taldeko abeslaria dan Taylor tar John'egaz orain irakurriko dozuen alkarrizketa egin dogu:

—Aizu John, nongoa zara?

—Leicester'koa naz.

—Kontxo! nun dago erri au?

—Inglaterran.

—Noiz etorri ziñan Euskalerrri'ra?

—Orain bost urte dala.

—Euskeraz zelan eta zergaitik ikasi dozu ain ondo?

—Nik zaletasun * aundia dot izkuntzak ikasteko ta niretzat euskereak oso garrantzi * aundia dau Europa'ko izkuntzen artean, zarra dalako. Oso ederra da, maitasun aundia dautsot.

—Euskera ikastea gatxa ala erreza da?

—Niretzat gaztelerea baño gatxagoa izan da, baña ez batzuk esaten daben lez ain gatxa.

—Eta musika-arloan zelan sartu zara?

—Musikeari ardura aundiko gauza bat deritxot *. Inglaterran talde batean abestuten neban eta emen, Euzkadin, orain urte bi dala talde batean sartu nintzan, baña talde ori apurtu egin zan eta orain «Lauburu» taldean nago.

—Zenbat lagunek osotzen dozue talde au?

—Lau gara. Neska bi ta gizonezkoak beste bi.

—Danak euskaldunak?

—Ez, neska bat eta ni bai, beste biak ikasten diardue.

—Abestuten dozuezan abestiak zuenak dira ala beste talde edo leku batetik artutakoak dira?

—Gcienak guk egindakoak dira, euskal-musikan oñarriturik, zenbait keltar (celta) eragipenak nabaitzen dira gure abestuteko tankeran *.

—Itzak norenak dira?

—Neuk egin dódaz.

—Euskaldun barria izateko eta inglesa gañera, bertsoan idaztea zelan lortu dozu?

—Lantzen, eta buru-auste aundiz.

—Erabiltzen dozuezan «instrumentoak» zeintzuk dira?

—«Flautca», «organoa», «pianoa», gitarrak sei ta amabi sokadunak, soñua eta bost sokadun «banjoa» sartu dogu, oker ezpanago, lenengoz euskal musikan.

—Baña asieran esan dogun lez, alkarrizketa tateko gaia, talde onek oraintsu egin dauan eresmintz barria dogu.

Eresmintz edo disko au noiz grabatu dozue?

—Epaillan egin genduan Donostia'n. «Herri-goaren» estudioetan.

—Zenbat abesti ditu eresmintz onek?

—Amaika abesti sartu doguz.

—Danak ezagutubakoak (ezezagunak)?

—Amar gureak dira eta ezagutubakoak, be Mikel Laboak abestuten dauan «Ama lil zaigu» ritxona.

—Disko barri au noiz ikusiko dogu salgai *.

—Loraillan uste dot urtengo dauala.

—Zure ustez grabaziño ona izango da?

—Bai, oso ona.

—Baña lendik beste zerbait ere grabatu dozue ezta?

—Bai, eresmintz txiki bat Donostia'ko Usandaga etxean, baña oso ale * gitxi egin ziran.

—Ba-dago Euskalerrian zuek abestuten dozuen tankeran kantatzen dauan beste talderen bat?


—Nik dakitenez, ez dago beste inor Euzkalgure tankerakorik.

—Zure ustez abesti onek gazteen gogokoak izango dira?


—Bai, nik uste dot baietz, arrakasta * auzango dabe.

Besterik ez gure aldetik, eskerrikasko John jarraitu aurrera, ia Lauburu taldeak zori auzango dauan euskal-musikaren barruan.

IBARRA'TAR BERNARDO



Gauza Laburrak



Udabarria aurrera doa, zugaitzen kimu ta orri barriak agiri dira. Gizadian bizitza, alaitasuna, itxaropena ta margo ederrak alde guztietatik. Gure aberri, langille, askatasun eta izkuntzak noiz izango ete dabe orrelako udabarririk?

* * *

Gure erriko kaleetan zear sarritan trumoiak baño zarata geiago egiten daben motordun batzuk ikusten doguz. Motordun oneik gure alboan igarotzen diranean belarriko zuloak estaldu egin bear izaten doguz, bestelan barruan daukagun maillua lertzeko * arriskuan daga.

Zarata onegaz atsegiñen bat lortuko dabe motordun oneik? Nire ustez onek merezi dabena, isun bat baño ezta.

* * *
Bilbon endore edo alkate barria dogu, Jon Castañares, Euzko Alderdi Jeltzalekoa. Poztuten gara Bilbo'ko alkate barria abertzalea dalako. Zorionak Jon! Jokatu gogor baño zintzo!

* * *

Endore barria-ba dogu Bilbo'n bizi garanok baño arazoak be bai, eta ez edozelakoak. Gure Jon Castañares'ek asmo ederrez beterik artuko dau alkatetza, baño gizajo onek zelan eroango dauz aurrera berak dauazan asmoak, lendik dagon 4.000.000.000 lauerleko galera aurkitzen ba'dau?

Ona emen urtenbide bat:

Galera au Madriletik ordaintzen ezpadabe (eurak edo euretarikoak dira errudunak eta) Bilbo'ko Udaletxean jasoten diran zerga * guztiak Bilbo'n geratu daitezala, Madrileria zentimorik bialdu gabe, ta gero ikusiko dogu!

EUSKALDUNBARRI

IZTEGIA

<i>Eresmintz</i>	= disco
<i>zaletasun</i>	= afición
<i>garrantzi</i>	= importancia
<i>gaztelera</i>	= castellano (idioma)
<i>deritxot</i>	= me parece
<i>osotu</i>	= componer, completar
<i>ikasten diardue</i>	= están estudiando
<i>eragipen</i>	= influencia
<i>tankera</i>	= forma
<i>deritxona</i>	= la que se llama
<i>salgai</i>	= a la venta (estar)
<i>ale</i>	= ejemplar
<i>arrakasta</i>	= éxito
<i>lertu</i>	= explotar
<i>zerga</i>	= impuesto


IZKI-NASTEIA

E	J	I	E	N	U	L	A	S	U	X	M	A	G	I
G	U	X	T	T	L	A	S	A	R	T	E	P	D	J
A	T	I	R	R	I	X	T	E	R	R	O	R	E	X
J	X	D	E	R	B	A	D	J	U	R	I	N	S	U
U	M	E	J	I	L	L	E	S	T	A	B	X	A	J
M	E	X	O	K	U	B	U	T	S	E	K	O	M	E
O	L	T	S	E	G	A	L	L	I	G	U	L	U	D
K	A	Z	E	Ñ	O	D	E	T	X	E	B	U	R	I
U	S	O	L	I	B	O	A	J	A	D	I	B	I	O
D	I	Ñ	O	S	I	R	R	E	L	O	G	U	Z	T
A	G	U	R	E	R	R	O	X	I	J	A	D	A	S

Izki-naste onetan, Euskalerrri'ko bost bertsoariaren izenak agertzen dira, zeintzuk dira? Erantzuna azkenengo orrialdean.

GURE-LURRA

LEA-ARTIBAI ALDEA GEROAZ BURRUKAN



1950: 22.318 biztanle

1960: 23.721 »

1970: 28.089 »

1976: 28.116 »

1977: 29.036 »

Bizkai osoko lurraren 9,29 % daukanarren, jendetza aldetik 2,38 % baiño ez dau osotzen. Proporzioan lanerako adinean jenderik gitxiarik daukan eskualdea dogu, jaiotzen kopurua urria izanik, zaar-jende asko dagoalako.

Ondarruk (Berriatua barruan dala) 12.509 biztanle ditu, eta berau dogu erri nagusia. Lekeitiok 7.421 eta Markinak (Ziarrotza tartean dala) 5.035 biztanle. Orrexeek, iruki bat egiten dabela, Lea-Artibaiko uri nagusiak ditugu.

Beste erri guztiak, gaur, mila biztanletik beerrakoak dira: Aulestiak 759, Etxebarriak 750, Ispasterrek 665, Munitibarrek 572 eta Amorotok 440. Erririk txikiak Mendexa (325 biztanle) eta Gizaburuaga (160) ditugu.

Azken zazpi urteotan erri nagusiak kendu ezker, beera egin dabe beste guztiak. Etxebarriak 260 inguru galdu ditu; Munitibarrek 230 inguru; Ispasterrek 135; Aulestiak 60; Amorotok 90 inguru. Markina berez berez geitu danetik gora, nekez azi da. Ondarroa eta Berriatuak ere berezko azkundera baino ez dau ezagutu urteotan: 600 lagun. Lekeitiok ere ia 500 lagun irabazi ditu.

Eskualdearen mugak

Lea-Artibairi buruz, batzuek eta besteek muga ezberdiak jarri ditue euren ikerlanetan. Bizkaiko Aldundiak egindako zatiketa jarraituko dogu guk, eskualdeko bertakoek ere axe artzen dabe aintzat eta.

LEA ibaiaren inguruan: Lekeitio, Ispaster, Gizaburuaga, Mendexa, Amoroto, Aulestia eta Munitibar.

ARTIBAI ibaiaren alde bietan: Ondarroa, Berriatua, Markina, Etxebarria eta Ziarrotza. Gaurkoz beintzat, Berriatua Ondarroari lotuta, eta Ziarrotza Markinari.

Caja Laboral-ek egin eban sozio-ekonomi lanetan Eako erria ere tartean sartzen eban, eta mapan Mendata ere bai. Erri biok Busturi aldea deritxon eskualdekotzat daukaguz gaur, eta baztertu egingo ditugu guk ere Lea-Artibaitik.

Zeaztasun Orokorrak

Biztanlegoa: 1977.ko datuek 29.036 biztanle emoten deutse eskualde osoari. Urterik urtera gorantz egin arren, berezko geitzea baiño ez dau izan Lea-Artibaik. Ikusi daigun datuetan:

Lanbidea

1974ko datuetatik, Lea-Artibai aldean 237 lanetxe geunkazan. Eurotatik 2.100 bearginetik gorakoak. Beste 5 ziran 50-100 beargin bitartekoak, eta 230 enparauak 15 beargin baiño gitxiago. Lanetxeok tresneria naiko arkitua, batez beste 10 beargin bakotzak, eta produktibitatea urri samarra.

Leenengo sektoreak 1973.an 51 % egiten eban (21 % nekazaritzatik eta 30 % arrantzutik); Bigarren sektoreak 27 % eta irugarrenak 22 %. Azken urteotan bigarren sektorea, leenengoaren lepotik, indartuz doa. Ondarroako itsasoak da-

karren bizitasuna kontutan artu bearra dago: arrantzuaren inguruan dagoan kontserbategi industria dogu garrantzitsuena: metalurji eta kontserba subsektoreok bigarren sektorearen 60 % egiten dabe ta, eta kontserbarenak, berak bakarririk, 50 %. Ondoren gisa, beraz, Lea-Artibain ez dogu ezagutu benetako enpresagintzarik. Gogoan izan, Bizkaian, industri saillak 54 % egiten daukela, eta irugarren sektoreak (merkatalgo eta zerbitzuenak) 39 %, lurgintza-arrantzuek alkarregaz 6,6 % baino ez diren bitartean. Markinan bakarririk eltzen da industria 39 % lortzera.

INSER etxeak egindako ikerlanean, 1974.an egoan enpleo 2.650.ra eltzen zala esaten da. Bizkai osokoaren 1,23 % industrialak. Erriz erri jo ezker, Markinak 868 lantoki, Ondarroak 768, Lekeitiok 512, Berriatuak 249, Etxebarriak 82 eta Ispasterrek 65. Eta prebisinoetan lantoki geitzetatik Lea-Artibain Bizkaiko 0,72 % baino ez zan itxaroten gerora, etorkizunik aundiena Bilbo Nagusiak, Durangaldeak eta Mungialdeak eukelarik.

Gaurko krisialdi onek zolitu baino ez dau egiten lanbide urritasun ori.

Uri nagusiak

Lea-Artibairen uriburu teorikoa *Markina* daren, ez dau Gernika edo Mungia batek dauken zereginik beteten. Merkatalgoa geldi samar. Kualifikepen gitxiko dendak. Banketxeak ere indar gitxi. Gaur, bertatik eta ingurutik, lanera edo erosketak egitera Durangora, Gernikara, Eibarrrera, Durangora edo Elgoibarrera doazenak bertan gelditu daitezten. Bide egitura on bat baleu ere, bidegurutze ona da Markina.

Ondarroak, amarren bat milla biztanle izango dituelarik, arrasteko arrantzuan buruzagitza dauka Bizkaian, bidez eta kaminoz txarto orniduta eta portu-instalapan kaskarrak izan arren. 15.000 tonelada arrain arrapatu ebazan 1970.ean. Komertzioz ondo orniduta dago, eta banketxez ere bai, dirua dago eta. Autobusez ere Bilbo, Deba, Gernika, Eibar, Elgoibar eta Lekeitiogaz alkartuta dago. Baiña ez dauka eskualde maillan eraginik.

Lekeitio ere kaminoz komunikabide eskasez egon arren, Bizkaiko turismo-uri onenaterikoa dogu. Gernikaren eraginpean dago, eta Lea aldeko errienganako erakarpenik ez dauka. Bizkaiko irugarren portua dogu, eta 1970ganean 50rren bat ontzik (700 arrantzaleri lanbidea daramotsenak) 2.445 tonelada deskargatu eben.

Etorkizuna

Osasun arloan, 1.600 biztanleko osagille bat baino ez dagoalarik (Bizkaian 724ko bat), eta

espezialidade bako iru anbulategi baino ez dagozela, Caja Laboral-en estudioak Nekazal Erresidentzi Sanitario bat egitea gomendatzen eban, 200 oe ingurugaz, baiña Bizkai zein Euskadi maillako plangintzak gaurkoz ez dabe olango asmorik azaltzen.

Industriari dagokionez, kooperatibagintzan ikusten da etorkizun bakarra. Markinako LEA ARTIBAI LANBIDE IKASTETXEA izango da orretarako oinarria, 1.500 ikaslerentzako tokia izango daualarik egiten dagoan etxe barriak, eta lan-espezialidadez ere ondo orniduta egongo dalarik.

Kooperatiba industrialak batzuk ba daukaguz: ARRASATE eta EIKA Markinan, CIKAUTXO Berriatuan, LEALDE Ispasterren, eta beste bi eginbidean: HERRIOLA Gizaburuagan, eta KIDE Berriatuan.

Eta industria-kooperatiba onceu alkarkuntzarako, eta Lea-Artibai aldea planifikatzeko LEARKO izeneko bigarren graduko kooperatiba bat.

Baiña puntu illunik ere ba dago geroari begira: nekazaritza anka gora dator beerantza; Ondarru ta Lekeitioko arrantza:lanbideak ere estrukturatze bearrian gorria dauka, eta zerbitzuen sailla ere makalik dago. Bide-egitura txarra baino txarragoa da. Lea Artibai aldea Bizkaiko dinamika guztitik baztertu samar agiri da. Eziketa maillan ere lanik asko dago egiteko.

Udaletxe barriek, mankomunidade bidetik josten badabe beintzat, eskualdeari urtenbidea emoten aleginduko direlakoan gagoz. Erri maillan egin ezin dana, ba leiteke eskualde maillan egieta-ta.

MENDIGANA



BERTSOETAN

EUSKOTAR GAZTEA

Olermenaren indarra dabil
garretan lez zelaian,
Egillea dago gain onetan
Euzkadiko zabaldian.

Argi indarra ta maitasuna,
ontasunaren ederra,
amai gabeko jakituria
eldu da gure lurrera.

Goiza, gizonaren eguna da,
arnaska daukat barrena,
izadi ederra iruntzi nairik
egun-senti oberena.

Goi guztia urdin. Izarbat dago.
Urrezko jantzita dator.
Lurra maite dau, goxo, isletan,
ta ni zuregana nator.

Eguzkiak maitasuna dauka
biotzak lez gorri-gorri,
bi nai aña elkar maite gara
odol-suak maitegarri.

Lurra ernari da maitasunez,
belar barriak intzetan,
zidarrezko ur tantoak dagoz
belar kukuluetan.

Izadiko edertasunean
biotza dabil taupaka,
era-berean, maitatu nai dau
lur, mendi, arkaitz aalaka.

Izadi maitearen guriña
olerki biurtu da, gaur,
ederregia da lur mamiña
lorea biurtu da aur.

Bizi barria zelaian dager,
olerkari gazte eginik,
su-garrak darioz biotzetik,
euskotar gizon danetik.

JUAN JU Ibarluzea gaztea,
udabarriko lorea,
euskaldun lurrean artu dozu
euskotarreen adorea.

Eusko lurrez poztu zara barnez,
ederrez bat egin zara,
Euzkadik jo dau zure biotza
Aberriaren erara.

Euzkadiko lurrean zearka
odolez dozu biotza,
Aberriarentzat ez dozu nai
katei-zarrez eriotza.

Gure mendi ta zelaiak zear
erri zar bat dago otska,
zuzentasuna eskatzen dabil
eriotz aurrean deika.

Euzkadi, zu indartu zagizala
olerkiaren garrak,
gazte, emoiozu amari
gogo, biotz ta atzamarrak.

«Paulin»

Goi-Errian Nire Biotza...

OARRA: Olerki au, berez, abesti-bat da. Eta antziñekoa, benetan. Robert Burns'ek abesti au aunditu eta luzatu eban. Ta, jakiña, Burns, olerkari ospetsu, Scotland'go semea zan (1759-1796).

JACA'k euskeratu dau olerkia. Euskeraren irakasle izan ziran bere amama eta ama'ren omenez.

ROBERT BURNS

My Hearts'e in the Highlands
Tune: «Falle na Miosg».

My heart's in the Highlands,
my heart is not hère;
My heart's in the Highlands
a-chasing the deer;
Chasing the wild deer,
and following the roe
My heart's in the Highlands
wherever I go.

* * *

Farewell to the Highlands,
farewell to the North,
The birth-place of valour,
the country of worth;
Whereve I wander,
wherever I rove,
The hills of the Highlands
for ever I love.

* * *

Farewell to the mountains
high cover'd with snow
Farewell to the straths
and green valleys below;
Farewell to the forests
and wild-hanging woods;
Farewell to the torrents
and loud-pouring floods.

* * *

My heart's in the Highlands,
my heart is not here,
My heart's in the Highlands
a-chasing the deer;
Chasing the wild deer,
and following the roc
My heart's in the Highlands
wherever I go.

Goi-errian nire biotza,
Biotza ez-dot emen;
Goi-errian nire biotza
Oreinak atxituten;
Baso-oreina eiza-egiñez,
Orkhatza jarraituten
Goi-errian nire biotza
Non-gura bizi-arren.

* * *

Goi-erriari agur ta agur,
Agur Ipar-lurrari,
Oldarraren itur-burua
Sari-gai dan sorterrri;
An nai emen orron izanez,
Ara t'ona ibilli,
Beti Goi-erriko muñoak
Niretzat maitegarri.

* * *

Agur ta agur mendi-garaiak
Edur jantzita zuri;
Agur musker ibai-zelaiak
Orlegi aranari;
Agur baso sakonak, agur
Zuaizpe oiandarri,
Agur-ba amillurak, ozentsu
Diran uriolari.

* * *

Goi-errian nire biotza,
Biotza ez dot emen;
Goi-errian nire biotza
Oreinak atxituten;
Baso-oreina eiza-egiñez,
Orkhatza jarraituten
Goi-errian nire biotza,
Non gura bizi-arren.

TXORIEN BATZARRA

EGAZTI-LEIAKETEA

Batzar bat egin eben, bein, zabalandiko zelaian, onguruko txoriak. Eta saia asi zan berbetan:

—Anaiok: Aukeratu dagigun, lenengoz, egaz gabiltzan egazti guztien erregea. Eta geutariko andi ta indartsuena izan daitela guztion nagusi.

—Andi ta indartsu zara, bai —erantzun eutson txepetxak—, baiña oitura txarreko pizti zikiña; ez dago gaiñera, andi-txikian geure gauzarik beñena.

—Zertan, orduan?

—Egaz egitea da, ziur, geure gauzarik ederrena. Eta gure egalaririk bizkorrena egin bear dogu errege.

—Ori... ori... oi u egin eben txori guztiak.

Eta or abiatzen dira egazka inguruko egazti guztiak danak batera, nor gorago igongo leia-keta izugarri orretan.

* * *

ARRANOAK

Nor izango ete da? Zein izango ete da?... Eta to! Arranoa nagusi. Arranoa, orduan, egazti guztien buru jarri eben eta onenlan asi zan.

—Ara ba, egin dogu gure egazti saio ori. Ba-dogu baiña egaztiok beste ezaugarri bat bere: geure kantak. Egin dagigun ba, beste saio ori be. Eta maiburuko jarri daitela nire alboan, guretarikoen artean txintarik ederrena dauan egaztia.

Eta txorrotxioka asi ziran txori guztiak. Txepetxak esan eutson arranoari:

—Okilla dozu, errege jauna... kil-kil-kil... geure basobal-tzerako oiulari.

—Utikan ori! Gure basoeta-ko zugatzak, pik eta pik, ondutzen ditu orrek!

—Kukuak kantatzen dau maizatzean, kuku-kuku!...

—Utikan ori! Besteen abian egiten ditu orrek bere arrautzak.

—Mozoloa, jauna!, uuu ta uuuu dabil ori gau guztian, ixildu barik.

—Utikan ori! Geure txoririk politenak iruntsiten ditu orrek!

* * *

URRETXINDORRA

—Urrentxindorra, ziur, jauna! Gau ta egun kanteten dau orrek, eta zelan gaiñera!

—Ori bai, gero! Orren doiñuen ezta! Orren txinten zogarria!

Eta Arranoak, urretxindor ori bere alboan jarrerazo bai, eta jarraitu eben gero:

—Ondo dago, enetxoak, egaz jasez egitea. Ondo kantari tre-bea izatea be. Beste gauzatxo bat bere bear dogu, orandiño, benetako egazti izateko.

—Zeren bearrean gagoz, ba, orandiño?

—Egaztia ederra be izan bear dala.

—Ederra?... —esan, eutson usoak— orra or belea, bere diz-dizko luma baltzak agerian.

—Utikan ori! Egazti salatari da!

—Papugorria dozu ederra, bere bular ondoko xinta gorritzat orregaz!

—Utikan ori! Txori borrokalari dok!

* * *

KARDANTXORIA

—Kardantxoria, ziur errege jauna! Orren galdor gorritzat, ego orizka, eta buztan nabarra langorik, jauna! Eta orren txintak, gero; eta ori lango adiskiderik gaiñera, jauna!

—Ori bai, gero! Txikia, baiña polita!

Eta kardantxori, egazti txiki baiña polit ori maiburuko sartu zan, arranoaren ta urretxindor-raren albora.

Eta alkarrizke: a luzea, iruron artean, egin ondoren, Arrano jaunak burua jaso eta amaitu eban andikiro.

* * *

TXORIEN ARAUTEGIA

Entzun ondo, enetxoak, zuoi buruz, orain, artu doguzan erabagiok:

«Kuku zital orrek, zure abia egingo dozu emendik aurrera, beste txori guztiak lez.

Sai tripani orrek, ez dozu iñongo egaztitik iruntsiko.

Bela maltzur orrek, ez dozu gu-tariko iñor salatuko.

Mozolo, begiandi orrek, ez dozu iñongo txoririk uruntsiko.

Eta maitatu ta alkar lagun-duaz bizi gaitetzala guztiok, emendik aurrera».

Arranoa, egazti guztien erregea, noz edo noz ixildu, zan txori guztiak inguruko beresi ta basoetara abiatu, ziran eta txorrotx... txio... txorrotxioka... ango txaradi baltzetan galdu ziran.

ESTONBA'TAR MANUEL

BIZKAI'KO IDAZLEAI!

GALTZEA

Urteak joan eta urteak etorri, Bizkai'ko euskaldunen artean batzuk euskal nortasuna galdu dabe edo gitxituez joake.

Bizkai'ko euskalkia asko baztertuta dago eta galtze ori benetan tamalgarria litzake, bizkaiera ain sakona ta ain jakintsua izanik.

* * *

ERRUDUNAK

Galtze orren errudun, asko dira.

Ezagunak dira ainbat Bizkai'ko euskaldun, bizkaiera ondo baiño obeto dakienak, bai eleizgizonen artean, baita beste arritar askoren artean, eta euren izenik ez da agiri euskal idazti ta aldizkarien artean.

* * *

BATUZALEAK

Orrein utsa aundia da eta benetako obena bizkaierearen aurka.

Beste askok, euskalzaleak izanik, Bizkai'ko euskalkia guztiz alde batera itzi dauan euskera batuan idazten dabe.

Bizkaiera iraindu egin dabe.

Oneik ba Bizkai'ko euskaldunen nortasuna galdu dabe.

Egia da batasunera eldu bearrean gogozela, baiña norberaren euskalkia guztiz ukatu barik.

* * *

FEDE-UKATZAILLEAK

Oraindiño beste batzuk dagoz ortik zear, len fededun izanak, orain, sinismenari lepoa emonik, euren idazti ta aldizkarietan fedearen aurkako gauzak darabillezenak.

Oneik be, euskal kristiñauen izateari uko egiñik, benetako Bizkai'ko euskaldunen senari uko egin dautsenak dira.

* * *

OSAKAIA

Guztiok eta geiagok euskal nortasuna galdu dabe, eta benetan galtze ikaragarri oneri osakaia emon bearrean gagoz, gure euskereak iraungo ba'dau.

Okerrak eta txarto egiñak zuzentzeko, lenengo egin bear dana, azterketea ta damutzea da.

* * *

DAMUTASUNA

Nunbaiten esan da: Damutasuna ekandu on eta onoiemenen UDABARRIA da.

Udabarrian, lo dagoana itxartu egiten da; il antzean dagoana, berbiztu egiten da; loren asierea orri ta landaren urteerea, udabarria; solo ta zelai, baso ta mendien jazkerea. Bardin ekandu txarretatik urteteko asierea, damutasuna da.

Lengo txarto egiñen damutasuna, geroko on egiteen oiñarri ta sustrai da zalantza barik.

* * *

NORTASUNARI EUTSI

Len esan dogu askok eta askok euskal nortasuna galdu dabela, guztiz edo asko beintzat.

Guztiz euskaldun nortasuna galdu ez ba dogu, lenbait len damutu bearrean gagoz.

Or dagoz gure asierea, gure itxartzea, gure berbiztea.

Gure euskaldun nortasunaren lenengo maillea ta udabarria, txarto egiñan damutasuna da.

ZAR-GAZTE

Kexana'ko Torrea

EZAGUN EZ DAN BAZTERRA

Gure alegiñik aundienak izan dira beti zerbait zer ikusi dagoan aberri'ko bazterrak ezagutzea, Zenbat eta obeto ezagutu, ainbat maitiago izaten da edozein gauza ta, ainbat ziurrago norberaren lurraldea, Aberria.

Eta orretarako, oso egoki izaten da, mendigoizalea mendirantza urten baiño len, pizkat oldoztutzea, zein menditan edo beren inguruetan zerbait ikusgarri ba'da aztertutea, ba-Dira Euzkadi-zeur, baster ikusgarriak eta euzkotar asko arduratu ez diralako gitxi baiño eza-gutzen ez-diranak.

Orreitariko bat dogu bear ba'da, Ayala aranean eta mendi biren barrenean edo euron bitartean aurkitzen dan Kexana'ko dorre-etxea eta bertan dan lekaime-etxea.

ETXEA TA LEKAIMEAK

Argazkian ikusi geinken Dorre-etxea, gotiko ertiko, Ayala'ko Perez'dar Pernan'ek amalau-garren gizaldian jasoa izan bear da.

Ayala'ko «Kondea» izan zanak, euzko-lur bikain ortako agintari edo jaun izan zanak.

Eta bertan sortu eban Kabelle'ko Miren donea'ren lekaime-etxea, Lekeitio'tik bertara ogei domekatar «Dueñas» esaten jaken lekaime ekarriaz.

Egun ontan be eurotarrak dira bertako jabe, apaiz bat meza emoteko ta artu-emonatarako dabela.

ALTARE-BURUA

Dorre-etxeari dautsola, txadon polit bat dago, oso apaiña aldare-buru edo erretablu «Barroko» apaindua, sarreran eta aldamen bietan, kondea'ren il-irudiak di tuala.

Garrantzi andiagokoa dorre-etxera sartuta ezkerrean aurkitzen dan txadontxua da, beti giltzez ertsita dagoana. Berak daualako aldare-buru ikusgarria, nai-ta gaur-egun daukona besterik izan ez Amerika'ko Txikago'ko erakus-tokian aurkitzen danaren ordezkua baiño, Bertan egon zan benetakoa Amierekara saldu edo, egin ebelako.

IKUSGARRIAK

Bai-ta txadontxu ortan aurkitzen dira Kondea'ren arzurizko illobi garestiak eta beste ikusgarri batzuk.

Dorre-etxeak bere goi-aldeko aretoetan, ba-ditu lau-lauki ta beste ikusgarri batzuk, baiña, gitxi batzuk baiño ez, lenago euki ei-zituan bikaiñenak, aberatsenak, eroanak diralako.

Dana dala, ba-dau zer ikusi, Errespalditza'tik aurrera ta Menagarai baiño len ezkerretara aurkitzen dan etxedi baketsu orrek.

GANGURENDARRAK

Ni lendik bere bertan egona nintzan bi edo iru bidar, bada, aldamenetako mendiak igon ondoren zerbait ikasi aldan tokiak atsegin dodazalako.

Baiña oraingoan, Galdakano'ko Ganguren mendi-goizale taldeko irurogei ta amar neska-mutillxu ta beste amar edo amalau nagusiren tartean izan nintzan, Galdakano'ko mendizale bazkun onek illean bat edo bi txango egiten ditu gaztelxuakaz mendira eta, oitura dabe mendira igonaz batera zerbait ongari erakutsitea.


Eta, orregaitik Piregaiña mendi galurrean gengo-zala azaldu iaken gaztelxu orrei Ayala arana edo Kondade de Ayala, zelan zan ogei ta amazpi erritxuk osatutakoa, zelan jaurtuten zan, zelan Zarobe'ko batzarlekuan batzazturik erriak berak egindako lagiak ontzat artuten zituan eta abar, Kexana'ko Dorre-etxe ta bertako ikusgarriak be, zer esan nai daben ta olakoak esan geuntsezan.

Amarretakoa mendi-ganean egin ondoren gaztelxu orreik alai ta jolastari dirala eta mendia-bera, jatsi gitzazan len aipatutako toki ikusgarri orreik ikustera, lendik baimena eskatuta genduan lez, ezetariko eragozpen barik erakutsitekotan.

Benetan pozluten genduezan gauzak ziran, gaztelxu orreitako askok eurakin gengoan nagusi ta bertako abadeari arduratsu egiten eutsezan galderak, edo itaunak. Ongarriak izan litzakezalako eurentzat.

Ezagutu Aberria.

ALTUNATA'TAR JOSU



EUSKERAZALEAK

«MARGINAZIOA»

Zapalketa, bortxakeria ta zenbaititz, itz ezezkor eta petral esanik, eta entzunik, gure Euskalerrri izurrituarekiko arazoak arrotzen, otzeintzatik burua jaso dadin osakaien billa eta, giltzape Madrid'en daukazkuezan gure ondasunak berreskuratzeari buruz solasik izan dogunean.

* * *

Gose-urteetan ogia amets, ugaritza iritxi dogunean, zaramatan aiña ogi zarama-zorroetan.

Dantza-jaien bat dabekatua izatean, errenik errenduena AITA SAN MIGEL IGORRETAKO... egiteko gerturik.

Mezaren bat galerazo izan dauskuenean, txerren deabrua be, adar eta buztan, eleizarantz indarka.

Garrantzia, beraz, izateari ez baiña debekatuari, galerazpenari damotsogu.

* * *

Gaur egungo egunetan, otoi ta borrokaz, arrenka ta iraulketa bidez, gureak ziranak eske ta eske diardugun aldi onetan «or doatzuez» esanik bat-batean eta danak batean emongo ba'leuskiguez, zenbait arazori ainbatek ez-ikusi ta muxin, ziur askorik.

* * *

Bortxaperatuen, zapalduen... *marginatuen* alde nator gaurko onetan, «Marginaturik» doguzan illabeteetariko baten alde, apaillaren alde, ain zuzen.

Illa bakoitxak bere izen berezia eta izenak aldiari dagokiona azaltzen dausku. Euskaldunai MARTH-XOAK baiña, zer adierazoten dausku? Lur-artzeko itxas-sail txiki itsasotxua?

* * *

Ez itsaso, ez mendi, ez txiki, ez andi, ez arrain, ez txori... K. K. zarra.

Eta euskera zaintzeko sortu izan dan alkarteak zer dagi?

Ba, batzutan amiltokian bera itzuli-murdika doan erri zeari KASU, beste batzutan kaixo mutil!

Euskerazaintza barriak lagunduko al gaitu, okerrak eta makurrak zuzentzen.

LANDAJUELA'tar A.'K.

IZKI-ZUKUAREN ERANTZUNA

E	J	I	E	N	U	L	A	S	U	X	M	A	G	I
G	U	X	T	T	L	A	S	A	R	T	E	P	D	J
A	T	I	R	R	I	X	T	E	R	R	O	R	E	X
J	X	D	E	R	B	A	D	J	U	R	I	N	S	U
U	M	E	J	I	L	L	E	S	T	A	B	X	A	J
M	E	X	O	K	U	B	U	T	S	E	K	O	M	E
O	L	T	S	E	G	A	L	L	I	G	U	L	U	D
K	A	Z	E	Ñ	O	D	E	T	X	E	B	U	R	I
U	S	O	L	I	B	O	A	J	A	D	I	B	I	O
D	I	Ñ	O	S	I	R	R	E	L	O	G	U	Z	T
A	G	U	R	E	R	R	O	X	I	J	A	D	A	S

ZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

*Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baino len,
lau laguntza barri.*

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen duan laguntza-moltzo osotua goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egiteko erant: una emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezaz.

Laguntza barria da ori eta laster erongo doguzan laguntza askoren artean, lene goa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.

